




LIBURUA

Klorofilazko sugarra



URTAROAK ETA ZEINUAK JON GEREDIAGA

PAMIELA, 2019

IGOR ESTANKONA

Atzo izan zela ematen du Jon Gerediagaren *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* (Pamiela, 2015) bukatu genuela. Arrasto hain sakona utzi zigun liburu hari jarraiki, baina beste norabide bat hartuz, hara non datorren berriro bilbotarra pobrezia alai batekin, hizkuntzaren ekonomiaren bidez naturaren guritasuna opatuz: "Asun-talde batek/ lur berri bat irabaziko du ametsarentzat eta euriarentzat".

Edertasunaren ekologia ez baita kانونen edertasuna. Haraindikoa da. As-katasunarekin du zerikusia, minarekin eta irautearekin, den guztia entzutearekin. Horregatik liburu hau errepikakorra da okilaren kantua bezala, beti bat kirikiño latzaren bidea lez: "Eta irabazten duenean bide bazterra,/

behin eta berriz, asunaren loreak".

Esan dezake norbaitek hara zer errutina. Eta harrigarriena da insistentzia horretan egiten duela aurrera diskurtso poetikoak, eta irailleko zeruen antzera direla poema guztiak beti bat baina beti desberdin: "Ikusiko ditut berriz,/ behin eta berriz berdatuko dira". Belarraren gorazarrea, frutarboletako loreena, sagarrarena, *Urtaroak eta zeinuak* ez da ari konkistatu beharreko inguru latz batez, ezpada gure espirituaz. Egin ditu idazleak batzuetan konparazioak naturaren eta bere emozioen artean, baina izadia hemen ez da pertsonifikatua, ez da erromantikoek asmatua, ez da eszenatokia, ez da *locus amoenus*. Halaber, ez da inkontzientean konkistarekin lotu dugun

gailur altuko natura zabalaz ari –Gary Snyder, Juanra Madariaga–, Euskal Herriko inguru suntsitu honetan harriaren gainean oharkabeen hazten den goroldioaz baino, edo pinudien familia historiaz, edo adar urdinen artetik erdi-ikusten den izar gozoaz.

Aurrera eta aurrera doaz poemak eta egoera berrietara jarririk dute irauten. Jon Gerediagak badaki itxaroten, sustrai meheak luzatzen ditu irakurlearen zerebroan. Ekin eta ekin ideia berari –iraun, moldatu–, eta hala ere hau ez da liburu monotonoa. Hau da liburu derrigorrezko bat azken urteotako uztan, itxuraz ezer esan barik dena esateko gaitasuna duen idazle bakan horietako batek poesiaren zelaietan bildua. ●